


DONEJAKUE BIDEA





HASIERA

“Zure Donejakue bidea, denon ondarea” heziketa-programaren oinarri diren eta hemen aurkezten dizkizuegun **ONDAREARI BURUZKO FITXAK** baliagarriak dira ikasleekin Santiago bideko kultur ondarearekin lotutako hainbat alderdi lantzeko.

Fitxen ordena Bideko etapen ordenaren antzekoa da. Fitxekin egindako lanetik ateratako ondorioak irekiak izango dira eta beste eduki tematiko batzuetan ateratako ondorioekin erlazionatu ahal izango dira.

Fitxak ez dira “erabilera-eskuliburu” bat. Ikasleen ezaugarrien eta interesen arabera, irakasleek gehien komeni zaizkien fitxak jarraibide gisa erabili ahal izango dituzte.

Fitxak honela egituratzen dira:

→ Hasiera batean, eta ideia-jasa gisa, irakasleak ikasleen hezkuntza-beharretara egokitu ditzakeen item batzuk proposatzen dizkizuegu. Helburua ez da ikasleek kontu bakoitzari erantzun bakarra ematea, baizik eta denon artean erantzun globalak bilatzea eta erantzun horiek irakasleak antolatutako talde malguetan elkartuta eztabaidatzea.

→ Planteatutako kontuei emandako erantzunak elkarri azaldu ostean, ikasitakoa osatzeko, **GURE PROPOSAMENA** atalean, irakasleak bai ikasgelan bai ikasgelatik kanpo egin daitezkeen hainbat jarduera aurkituko ditu.

Bai itemen bai jardueren planteamendua diziplinartekotasunean eta ikaskuntza kolaboratiboan oinarritzen da. Hortaz, ikasgelaren programazioetan sekuentziatu ahal izango direnez, fitxak curriculumeko ikasgai desberdinetan Donejakue bidea azaltzen duten eduki teorikoak ukitzen dituzten unitate didaktikoei itxiera emateko erabil daitezke.

Hemen aurkezten ditugun materialarekin egindako lanaren azken xedea Donejakue bideari buruzko sorkuntza artistikoko lanak sortzea izango da.

Bide ona opa dizuegu



ZER DA DONEJAKUE BIDEA ... zure ikasleentzat

Hasteko, definizio zehatza ematea da egokiena, ikasleei Donejakue bidea zer den argi uzteko. Hala ere, nahiago dugu etapa honetan zehar zuek erantzuna aurkitzea, bidaiari aurreiritzirik gabe ekiteko.

Gainera, Donejakue bidea zer den zehaztu baino, ikasleek Bidearen gainean zer dakiten jakin nahi dugu. Horregatik, ikasleentzako lehen galdera hauxe izango da: **zuen ustez, zer da Donejakue bidea?**

Hiru kasu aurki ditzakegu:

Denek ezagutzen dute
Batzuek ezagutzen dute
Inork ez du ezagutzen

Donejakue bideari buruz ezer ez dakitenek zortea dute:
bidaia eder bat hasi eta gauza zoragarriak ezagutuko dituzte.

Gure I. proposamena: Donejakue bideari buruz
ezer ez dakitenentzat ...

Joan fitxaren amaierara gehiago jakiteko...

Beste gela batzuetan, litekeena da ikasle guztiek Bidea ezagutzea. Ikastetxe askok Bidearen zati bat taldean egiten dute haien programazio eta bidaia kulturalen barruan, ibilbide interesgarria baita ikasketa-bidaia gisa. Hori bada zuen kasua, eta Donejakue bidea egin izanagatik ezagutzen baduzue, kontuan izan denek ez dutela zorte hori. Gainera, nahiz eta zati bat ezagutu, badaude aurrerago ezagutuko ditugun beste bide batzuk.

Gure II. proposamena: Bideari buruz dena
dakitena uste dutenentzat ...

Joan fitxaren amaierara gehiago jakiteko...

Seguruenik, ikasle batzuek ezagutuko dute, haiek edota senide zein lagunek Bidearen zati bat edo Bide osoa egin izanagatik. **2016. urtean, guztira, 277.854 pertsonak** egin zuten Donejakue bidea. Horietariko asko ikasleak izan ziren.

Hori bada zuen kasua eta batzuek dagoeneko badakite zer den Donejakue bidea, norberaren hitzez, beste ikasleei zer den azaltzeko eska diezaiekezu. Garrantzitsua da azalpen argiak ematea, lagun artekoak, testuingurua ahaztuta. Idatzi argitu gabe gelditzen diren zalantza guztiak, gero, denon artean erantzuna bilatzeko.

Horrela, taldeak gaiari buruz zer dakien eta nolako interesa duen neurtuko dugu, ondorengo jarduerak hobeto bideratu ahal izateko. Abiapuntu gisa, zehazki jakin behar dugu, ikasleen ustez, zer den Donejakue bidea.

Bidearekin erlazionatutako pasadizoak edota bizipenak al dituzte? Entzun al dituzte Bidearekin lotutako istorioak edo albisteak? Une egokia da beste ikaskideekin partekatzeko.

Behin Donejakue bidea zer den azaldutakoan, dakigunarekin definizio bat osatuko dugu: lehenik, banaka, gero, talde txikitan eta, azkenik, ikasle guztiekin.

Definizio batean gauza material edo immaterial baten ezaugarri generiko eta bereizgarriak argi eta garbi azaltzen dira; hortaz, ikus dezagun zer jotzen du garrantzitsutzat ikasle bakoitzak. Definizioan, alderdi historiko, geografiko, soziologiko, kulturalak eta abar txerta daitezke. Deskribapena nahi bezain luzea izan daiteke. Hona hemen adibide bat:

- Donejakue bidea ... abiatzen den ...
- Donejakue bidea ... ibilbide bat da ...
- Donejakue bidea ... non erromesek ...
- Donejakue bidea ... probintzia asko igarotzen ditu ...
- Donejakue bidea ... zentzu espiritual du ...
- Donejakue bidea ... monumentuz betea ...

Taldeak Donejakue bidea zer den eta zer esan nahi duen hobeto ulertu dezan, oinarritzko pintzelkada batzuk emango dizkizuegu. Fitxa bakoitzarekin, informazioa pixkanaka gehitzen joan zaitezke.

IX. mendean Santiago Konpostelakoan Santiago apostoluaren hilobia aurkitu zutenez geroztik, erromesek mendeetan zehar eratu zituzten Donejakue Bidearen ibilbide guztiak, amaiera Santiagon dutelarik.

Santiagoko erromesaldiak bertaratzeko bidea indar handiz zehaztu du, beste erromesaldi askok ez bezala. Santiagorako bide historikoen lekukotza jasotzen duten erromesen bidaia-liburuak ugariak dira. Horren adibide da Aymeric Picaudek XII. mendean idatzitako kontakizuna, Kalistoren Kodexaren V. liburuan jaso, non berak Frantses Bidea jarraituz egin zuen erromesaldia xehetasun guztiekin kontatzen baitu.

Egungo erromesa eta Erdi Aroko erromesa oso desberdinak direla uste dute?

(Gehiago jakiteko, ikusi "Ondarea eta turismo kulturala" fitxa)

Gure III. proposamena: Kode Calixtinoa iturri onenetako bat da ...

Joan fitxaren amaierara gehiago jakiteko...

Aymeric Picaud-ek Frantses bidean zehar egindako ibilbidea ezagunenetakoa da eta **“Erdi Aroko erromesaren gida”** izenaz ezagutzen den Kode Calixtinoaren V. liburuan zehatz-mehatz jasotzen da. Obra honek bidaia egiteko gomendioak ematen ditu, etapa desberdinetako herri eta jendeei buruzko iritziak adierazita. Geografiaren eta gizartearen gaineko hainbat aipamen eta deskribapen xeblebre egiten ditu, xehetasunez beteak.

➔ Donejakue Bidearen ibilbide historikoak Europako komunikabide garrantzitsu eta ezagunenetarikoak izan ziren duela mende batzuk. Europako kultura komuna hedatzeko ardatz multzo bat zen eta Espainia iparraldeko eskualde askotako bizitza soziala eta ekonomikoa eraldatzea lortu zuten. Horrez gain, haien inguruan biztanle kopuru handi samarra biltzen zuten eta ekonomikoki indarra zuten hiri eta hiribildu garrantzitsuak agertu ziren; gremioak ere indarrez ezarri ziren haietan. Kultura eta tradizioak transmititzeko iturri amaigabea izan zen Bidea, eta beste herrialde batzuetatik zetozen estiloak zabaltzea posible egin zuen, Bidean zehar dauden eliza, katedral eta eraikuntza zibiletan ikus dezakegun bezala.

(Gehiago jakiteko, ikusi “Ondarea eta memoria” fitxa)

➔ Donejakue Bidea Espainiako ondare kulturalik garrantzitsuenetakoa da, ondare materialaren eta immaterialaren ikuspegitik.

Frantses bidea eta Penintsulako iparraldeko bideak Gizadiaren Ondare izendatu zituzten 1993an eta 2015eko uztaillean, hurrenez hurren. Penintsulako iparraldeko bideek, jatorrira itzuliz, Frantses bideak irudikatzen duen erromesaldien fenomenoaren osatzen dute. Frantses bideko lau ibilbideak Espainiako iparraldeko nabarmenenak izan ziren Bidearen historiaren hasierari lotuta.

(Gehiago jakiteko, ikusi “Ondarea eta turismo kulturala” fitxa)

➔ Mila urte baino gehiago dituen bide hau Europako komunikabide izan da bere historia guztian eta gaur egun ere bizirik dirau, bidea egiten duten pertsonen eta bideak zeharkatzen dituen herrien artean etengabeko elkartruke kulturala ahalbidetuz.

Orrialde hauetan biltzen ditugun lau ibilbide historiko hauek multzo historiko-artistiko izendatu zituzten 1962an eta nazioarteko sari asko jaso dituzte urteotan. Horrela, 1987an Europako Lehen Ibilbide Kultural izendatu zituen Europako Kontseiluak, eta 2004an Europako

Ibilbide Kultural Handiaren izendapena eman zieten.

2004an, Asturiasko Printzea saria jaso zuen Donejakue Bideak, «erromesaldietako lekua eta pertsonen eta herrien arteko elkargune izateagatik, mendeetan zehar anaitasunaren ikur eta Europako kontzientziaren egituratzaile bihurtuz». Izan ere, ez da ahaztu behar Bidea, ibilbide kultural bezala, edo ibilbide artistiko, galtzada historiko edo kirolari eta turistentzako bide gisa «historia guztiko Europako kulturaren hiribide nagusia» izan dela.

Informazio hori guztia, planteatu dizkizuegun bi proposamenekin batera, Donejakue bidera hurbiltzeko baliagarria izango zaizue. Horrez gain, eta dena argi gelditu dadin, taldean mapa kontzeptual bat sortzea proposatzen dizuegu; horrela, ikasleek, funtsezko ideiak ondo antolatu eta ulertuko dituzte.

**Atera argazki bat arbelari (zuek sortutako definizioa eta mapa) eta bidaliezaguzue.
Emaizta ikusteko irrikan gaude!**

info@tucaminodesantiagoconcurso.es

Informazio gehiago behar baduzue, bila ezazue autonomia-erkidegoek Donejakue bidearekin lotuta sortu dituzten webgune ofizialetan.

Ikusiko duzuenek, Bidea igarotzen den erkidego bakoitzak azalpen desberdin bat ematen du. Ikasgelan egin duzuen bezalaxe (lehenik, banaka, gero, taldeka eta, azkenik, denon artean definizioa sortu eta alderdi jakin batzuk nabarmendu), organismo publiko bakoitzak Bidea bere erara definitzen du, garrantzitsutzat jotzen duena azpimarratuta. Ondorioz, Bide bera bada ere, ñabardurak edo informazioa emateko modua desberdinak izango dira beti.

(Gehiago jakiteko, ikusi "Ondarea eta turismo kulturala" fitxa)

Webgune ofizialetan ez ezik, beste hainbat tokitan ere aurki ditzakegu Bidearen gaineko argibideak. Erromes askok sare sozialak erabiltzen dituzten informazioa, iritziak, argazki eta bideo interesgarriak partekatzen.

Sare sozialak ikaskuntza kolaboratiborako tresna bikaina dira eta ikasleak horretan adituak izango dira, seguru.

Banatu taldea gehien erabiltzen dituzten sareen arabera: **Facebook, Youtube, Instagram, Twitter, etc.** Bakoitza Bidearen gaineko informazio aipagarria bilatzeaz arduratuko da.

Gure heziketa-programak kontua ireki du Instagramen! Jarraituko gaitzazu?

https://www.instagram.com/tu_camino_de_santiago/

Etapia amaitu da, merezitako atsedena! ...

Lehen geldialdira iritsi gara. Egindako lanari esker, hobeto dakigu zer den Donejakue bidea.

Bidea ezagutu ondoren, zer diote ezer ez zekiten ikasleek?
Bidaia egitea interesgarria iruditzen al zaie?

DONEJAKUE BIDEAREN ZENTZUA ... zure ikasleentzat

2. ETAPA

Donejakue Bidea

Donejakue bidea zer den aztertu ondoren, galdera hau datorkigu burura:
zertarako balio du Bideak?

Hasieran, ikasleek Donejakue bidearen inguruan egindako azalpenetan eta bizitako esperientzietan jarrai dugu arreta. Ikasleek azalpenak egiteko moduari eta erabili dituzten hitzei emandako zentzuari erreparatuta, ikusiko dugu haientzat Bideak balio berezia ote duen edo beste ibilbide bat besterik ez ote den.

Iritsi da ordua Bideak egiaz zer balio duen eta Bidea egitera zerk bultzatzen gaituen aztertzeke.

Donejakue bidea erromesbide bat izan zen hasieran.
Nolako pisua du alderdi espiritualak gaur egungo gizartean?
Ikasgelan zer balio ematen diozue?

Haatik, gaur egun, Bidearen zentzua ez da soilik espiritual. Urtero mota askotako milaka bidaiarik egiten dute Bidea. **Zergatik egiten ote dute?**

Entzun dezagun ikasleen iritzia.
Haiei ustez, gaur egun, zergatik egiten dute Donejakue bidea erromesek?
Idatzi adierazten diren iritzi guztiak, aurrerago aztertuko ditugu-eta.

Erromesen motibazioa hobeto ulertzeko, **bila dezagun informazioa iturri desberdinetan:**

1

Hainbat erromesi galdetu diegu zerk bultzatu zituen bidaia hasiera eta, jasotako erantzunen artean, hauek hautatu ditugu:

- **Ana (Madril - 53 urte)** "Bidaia bilaketa pertsonal bat egiteko, neure burua aurkitzeko egin nuen".
 - **Adriá (Girona - 25 urte)** "Toki bakoitzak gordetzen duen historiaz goatzeko".
 - **Pablo (Logroño - 33 urte)** "Esperientzia berezi bat bizitzeko".
 - **Iker (Zarautz - 28 urte)** "Lagunekin bidaia bat egiteko".
- **Andrés (Bartzelona - 43 urte)** "Natura eta paisaia zoragarriak dituen ingurunea delako".
 - **Pilar (Burgos - 54 urte)** "Nire familian ia tradizio bihurtu delako".
- **Yeray (Tenerife - 49 urte)** "Izugarri gustatzen zaidalako herri bakoitzeko gastronomiaz goatzea".
 - **Familia Gadea (Valentzia - 41 - 40 - 9 - 13 urte)** "Familia giroan turismoa egiteko".
 - **Lluís (Bartzelona - 29 urte)** "Jende askok egiten duelako. Bidea modan dago".
 - **Antía (Lugo - 30 urte)** "Kirola egitea eta sasoi onean egotea gogoko dudalako".
 - **Juan (Oviedo - 58 urte)** "Ondo pasatzeko, besterik ez".
- **Kultura-elkarte batek (Extremadura)** "Bideko artea eta kultur ondarea ezagutzeko".
 - **Rosa (Madril - 48 urte)** "Promes egin nuelako".

2

Iritzi horiez gain, seguruenik, taldean beste uste eta esperientzia batzuk aurkituko dituzte senide eta lagun artean.

Goian adierazitakoekin bat al datoz? Beste iritzirik txertatu al dute?

3

Hala ere, ezin dugu ondoriorik atera pertsona horien iruzkinetatik edota ikasleen usteetatik. Galdera horri erantzuteko datu ofizialak **Santiago de Compostelako Erromesen Bulegoan** edo **Donejakue bidearen adiskideen elkarteek** urtero egiten dituzten galdeketatan aurkituko ditugu.

Ikasleen zalantzak argitzeko datu estatistikoak behar badituzue, kontsultatu iturri horiek; izan ere, erromesen gaineko hainbat estatistika interesgarri jasotzen dituzte.

<https://oficinadelperegrino.com/estadisticas/>

Une honetan guri gehien interesatzen zaigun datua motibazioa da. Horren inguruan, **Santiago de Compostelako Erromesen Bulegoak** egindako galdeketak hiru aukera ematen ditu:

-  **erlijioarekin lotutako motibazioa**
-  **erlijio-kulturarekin lotutako motibazioa**
-  **kulturarekin lotutako motibazioa**

Gai izango al lirateke ikasleak goiko erantzun pertsonalak hiru kategoria horietan sailkatzeko?

4

Bestetik, erromesen gainean gehiago jakiteko, **Donejakue bidearen lagun elkartearen federazioarekin** harremanetan jartzea proposatzen dizuegu. Federazioa Espainiako ia autonomia-erkidego guztietako hainbat elkarte osatzen dute. Gainera, federazioko kideen esperientzia eta ezagutza benetan baliagarriak izango dira ikasleei Donejakue bideari buruz jakin beharreko guztia zuzenean azaltzeko.

Bidea bizirik mantentzeko funtsezko lana egiten du federazioak: sustapen-ekitaldiak, azterketak eta ikerketak, aldizkako argitalpenak ("**Peregrino**" aldizkaria), ikastaroak eta hitzaldiak, eta abar.

Gainera, zuen lana Santiago de Compostelako erakusketara eramateko baloratuko den alderdietako bat, taldea sortzeko prozesuan, Donejakue bidearekin lotutako tokian tokiko kolektiboen parte-hartzea izango da.

Argibide gehiago behar baduzue lagun diezazueketen elkartearen inguruan, galdetu besterik ez duzue:

<http://www.caminosantiago.org/cpperegrino/comun/inicio.asp>

Aitzitik, ez ditugu erromesen motibazioak benetan ezagutuko erromes berak ezagutzen ez ditugun arte. Beraz, erromesei zuzenean galdetzea proposatzen dizuegu.

(Gehiago jakiteko, ikusi "Ondarea eta turismo kulturala" fitxa)

Azkenik, beste aukera on bat gaiaren gaineko informazioa Interneten bilatzea da: ikasleek bidaiarien iritziak biltzen dituzten dozenaka artikulua eta blog aurkituko dituzte.

Informazio horrekin guztiarekin argi geldituko da zera: egungo eta antzinako erromesak garai bakoitzeko gizartea irudikatzen dute. Gaur egungo erromesak ez du zer ikusirik Erdi Aroko erromesarekin. Hasieran, bidaiariak Bidea zentzu espiritualak bultzatuta egiten zuten; gaur egungo motibazioak, ordea, beste batzuk izango dira, akaso.

Hortaz, taldeak hainbat erromesen motibazioak ikertzen dituenean, aprobetxatu aukera ikasleen artean eztabaida pizteko. Ikasleek norbere ideiak azalduko dituzte besteen iritziak errespetatuta.

Donejakue bideak gaur egun duen zentzuaren gainean hausnarketa egitea proposatzen dizuegu.

Baina, besteen esperientziei erreparatzeaz gain, eztabaida hasteko galdera honi erantzun diezaiokizue:

zerk bultzatuko luke zuen taldea Bidea egitera?

Beharbada ez dute interesik adieraziko, edo, agian, erronka interesgarritzat joko dute.

Zein da ikasleen jarrera?

Gure IV. proposamena: Donejakue bidea nahiko ondo ikertu eta aztertut dugunez, iritsi da garaia...

Joan fitxaren amaierara gehiago jakiteko...

Eztabaida aberastearren, Bidea egiteko motibazioaren inguruko alderdi interesgarri bat proposatzen dizuegu: **filosofiko edo transzendental**.

Nork uzten du aztarna: bidaiariak edo Bideak?

Honi buruz hitz egin aurretik, taldean irakurtzeko eta aztertzeko bi testu proposatzen dizkizuegu, bidaiaren zentzu sinbolikoari buruzkoak.

Constantino Cavafis.
"Ithakarako bidaia"

Cuando emprendas tu viaje a Ítaca,
pide que el camino sea largo...
lleno de aventuras,
lleno de experiencias.
No temas a los lestrigones
ni a los cíclopes
ni al colérico Poseidón,
seres tales jamás hallarás
en tu camino,
si tu pensar es elevado, si selecta
es la emoción que toca tu espíritu
y tu cuerpo...

Antonio Machado.
"Ibiltari, ez dago biderik"


Caminante, son tus huellas
el camino y nada más;
Caminante, no hay camino,
se hace camino al andar.
Al andar se hace el camino,
y al volver la vista atrás
se ve la senda que nunca
se ha de volver a pisar.
Caminante no hay camino
sino estelas en la mar.

Poesiek harrera ona izan dute?

Txioen erritmoan bizi garen garai honetan, zertarako balio die poesiak egungo ikasleei?
Ausartuko zinatekete interesatzen zaizuen gai baten gaineko poesia sortzen?
Ausartuko zinatekete Donejakue bidearen gaineko poesia sortzen?

Proposamen hau ez dugu ausaz egin; fitxa hauetan ez dago ausazko planteamendurik. Gogoan izan heziketa-programaren kategorietako bat komiki/argazki-komikiarena dela. Kasu horretan, ilustrazioa garrantzitsua da, baina baita edukia ere; eta, zenbaitetan, eduki hori testu poetiko bat izan daiteke.

Eta argazki bidez irudi bihurtutako poesia?



EZ DA SOILIK bide bat...

Donejakue bideari buruzko sorkuntza artistikoko lana ikasleek egin behar dutenez gero, aurreko etapetan ikasleek Bidea zer den eta zer zentzu duen ulertzea eta eztabaidatzea izan da gure helburua.

Informazioa bilatzen zuten bitartean, agian batzuek komentatuko zuten Bidea egin dutela. Haatik, litekeena da toki desberdinetan egon izana.

Zalantza sortu da? Ez ote da Bide bakarra?

Gutako askok ez dugu zalantzarik izango, baina agian ikasleek bai.

Hala, garrantzitsua da ikasleei ikusaraztea Donejakue bidea ez dela ibilbide bakar bat, baizik eta Europako urruneko lekuetatik abiatzen diren ibilbide asko, Erdi Aroko erromesbideen legatuz. Dozenaka bide heltzen dira Santiago de Compostelara.

Gure V. proposamena: Erreparatu mapan Europako zenbat herri eta hiritatik igarotzen den Donejakue bidea...

Joan fitxaren amaierara gehiago jakiteko...

Gure herrialdean, Donejakue bideak hainbat probintzia zeharkatzen ditu.
Horiek horrela, esan genezake Donejakue bide asko daudela.

Baina, heziketa-programa honetan Donejakue Kontseiluaren eskumenekoak diren bideak soilik landuko ditugu. Jarraian, bideak hitz batez aurkeztu eta eztabaidarako galdera batzuk proposatuko ditugu:

Frantses Bidea

Gaur egun, zirkulazio handiena duena, zalantzarik gabe. Frantses Bidea Garesen elkartzen diren bi adarretatik sartzen da penintsulara: bat Nafarroatik, Orreagatik sartu eta Gareseraino iristen dena Iruñea zeharkatu ondoren, eta bestea Aragoitik; azken hori Somportetik abiatzen da eta Huescako Jaca eta San Juan de la Peña herriak atzean utzita Leireko monasteriotik eta Zangozatik pasatzen da Garesera heldu aurretik.

Bide-zatiek penintsulako ia iparralde osoa ezagutzeko aukera ematen dute, baso nafarretan, Errioxako mahastietan, Gaztela eta Leongo lautada eta katedraletan, eta Galiziako mendi zein larreetan barrena. Tradizio historiko luzeena (lehen deskribapenak XII. mendekoak dira) eta nazioartean ospe handiena duen bidera eramaten gaituzten 900 kilometro baino gehiago.

Iturria: Xacobeo Galicia eta Donejakue Kontseilua.

Zenbat kilometro egin daitezke etapa bakoitzean?

Donejakue bidea ez da lasterketa bat; erromesak erabakiko du zenbat kilometro egin nahi dituen. Gogoan izan Bidea bizikletaz eta zaldiz egin daitekeela; beraz, geldialdiak askatasunez aukeratzen dira, bai eta eskaini nahi diogun denbora ere.

Kostaldeko Bidea

Erromes joateko Santiago bide zaharrenetako bat da, jatorriz, bide honen bitartez zabaldu baitzen Santiago gurtzeko tradizioa IX. mendean, itsas merkataritzaren bidez. Gipuzkoa, Bizkaia, Kantabria, Asturias, Lugo eta Coruña zeharkatzen ditu.

Jatorrizko bidearen ostean, Asturiasko kostaldetik doan eta Galizian Ribadeoko itsasadarretik sartzen den ibilbide honek garrantzi handia hartu zuen Behe Erdi Aroan. Garai hartan, itsas erromesaldiak beren goren aldian zeuden, eta Oviedon Gurutze Santuaren Jubileua ospatzen hasi zen.

Erdi Aroaren amaierako erromesek, erlikiak beneratzeko eta induljentziak irabazteko gosez, Oviedo bisitatzen zuten Compostelara egindako bidaiaren osagarri.

Kostaldeko bideak bizirik iraun zuen XVIII. mendera arte. Eta Asturiasko erromesak ez ezik, penintsulako iparralde osoko erlijiozaleak erakartzen zituen, baita Europako beste eskualdetakoak ere (hala nola Ingalaterra, Flandria, Alemania edo Eskandinavia), lurrez edo itsasoz.

Iturria: Xacobeo Galicia

Taldeak ba al daki Santiagora iristeko Santiago bide batzuk zati batean itsasoz egiten direla?

Lebaniego Bidea

Kantabriatik igarotzen den Kostaldeko bidearen adar bat da. San Toribio Astorgako apezpikuaren gorpuzkia eta santu berak Jerusalemetik ekarri zituen *Lignum Crucis*-aren (Elizak aintzat hartzen duen Kristoren Gurutzearen zatirik handiena) erlikiak beneratzeko xedez sortu zen. *Lignum Crucis* erlikiak erromes asko erakartzen zituen antzina-antzinatik. Izan ere, buruko gaitzak sendatzen omen zituen, kronista askoren idatzietan jasotzen denez, eta hain zen handia erromesen kopurua, non monasterioari Jerusalem txiki izena ere eman baitzitzaion.

Iturria: Donejakue Kontseilua.

Ikusten duzuenez, Santiago bide baten amaieran ez dago beti Santiago de Compostela, baina kasu honetan motibazioa berbera da, espiritual.

Eae-errioxako Barnealdeko Bidea

Frantziako Baiona hiritik abiatuta eta Irun igarotzean (kostaldeko oinezko pasabide bakarra), Erromesek bi aukera dituzte Santiagora joateko: Kostaldeko bidea hartu penintsulako iparraldetik edo hegoaldera jo Santo Domingo de la Calzadan edo Burgosen Frantses bidearekin bat egiteko.

Paisaia ederrez inguratutako bide honek erromatarren galtzada zaharren zati batzuk igarotzen ditu. Halaber, Kantauriar mendikatea zeharkatzen du Gipuzkoako San Adriango tunela bezalako igarobideetatik: igarobidea arrozkazko mendi batean sartzen da eta parke naturalean bertan dago. Nekez 70 metroko luzera duen tunelak izen bereko ermita bat du barruan.

Antza denez, bide hau Santo Domingo de la Calzadako santutegirako erromesaldiek XV. mendetik aurrera izan zuten gorakadaren ondorioz sortu zen, Santiago de Compostelara zihoan erromes bat protagonista duen urkatuaren, oilarraren eta oiloaren kondairaren agerpenarekin lotuta (izan ere, legenda Europa osoan zabaldu zen).

Ibilbide batzuk besteak baino errazagoak dira?

Ibilbide guztiek dituzte etapa zailagoak eta samurragoak. Baina neketsuak izan daitezkeela pentsatzea baino, hobe dugu ibilbide bakoitzak eskaintzen dituen edertasunaz eta aukerez gozatzea. Ibili beti gora eta begira.

Bidea aukera paregabea da norberegana eta inguruan gauza berriak aurkitzeko.

Jatorrizko Bidea

Izendaturiko Antzinako Bidea da Donejakue Bidearen jatorria, dokumentatuta dauden ibilbideetatik zaharrena baita. Lehen ibilbidea IX. mende hasieran sortu zen Alfontso II.a «Kastua» (791-842) orduan erresumako hiriburu zen Oviedotik «*Campus Stellae*»-ra abiatu zenean, orduan aurkitu berria zen Santiago Apostoluaren hilobia bisitatzera. Ibilbide honek erromatarren garaiko komunikabideak jarraitzen ditu. Hortik igarotzen ziren erromesak Santuaren gorpuzkina bisitatzera, zenbaitetan arriskutsua zen bidaia eginez. Ez dezagun ahaztu garai hartan musulmanen menpe zegoela penintsularen eremu zabala.

Iturria: Donejakue Kontseilua.

Ibilbide guztiak Santiago de Compostelan amaitzen dira?

Ez, ibilbide batzuk beste Bide batekin elkartzen dira. Kasu honetan, Jatorrizko bideak Frantses bidearekin bat egiten du Compostelatik hiru egunera.

Katalunia-Aragoiko Bidea

Katalunia eta Aragoiko Bidea sortu zen Languedocetik (Frantzia hegoaldetik) eta Italiatik zetozen erromesen ondorioz, horiek nahiago baitzuten penintsulan Sant Pere de Rodesetik eta La Jonqueratik sartu. Montserrat, Lleida eta Zaragoza igarotzen ditu Logroñora iritsi arte; bertan, Frantses bidearekin elkartzen da.

Erromes horiek ez zuten beti biderik motzena edo errazena aukeratzen. Askotan, ibilbide luzeagoak hautatzen zituzten, monasterio ospetsuak bisitatu eta bertako irudi edo erlikiak gurtzeko. Gironan, erromes batzuek San Nartzisoren hilobia bisitatzeko zuten eta Bartzelonan asko Santa Eulaliaren hilobira joaten ziren otoitz egitera. Sant Pere de Rodes eta Sant Cugateko monasterioek hartu zuten ospea oso garrantzitsua izan zen ibilbide hori ezartzeko orduan.

Iturria: Donejakue Kontseilua.

**Donejakue bideko ibilbideak mapa batean behatzean,
zer zatik sortzen du jakin-min gehiago ikasleen artean?**


Zerk pizten die arreta zati horretan?

Zeren arabera aukeratzen dute? Zeintzuk dira haien motibazioak?

Erantzunetan erromesek Bidea egiteko ematen dituzten arrazoiak aurkituko dituzue.

Gogoan izan fitxan hautatu genituen arrazoiak.





Iturria: Institutu Geografikaren Nazionala eta Donejakue bidearen lagunen elkarten federazioarekin

Gure VI. proposamena: Beharbada ikastetxea ibilbideetan aipatutako herri edo hiriren batetik gertu egongo da...

Joan fitxaren amaierara gehiago jakiteko...

Donejakue bidea Espainiako hainbeste lekuetatik igarotzen denez, zalantza sor daiteke jabetzaren gainean: nor arduratzen da bidearen kontserbazioaz? Bidea ez da inorena, baina badago Estatuaren Administrazio Orokorren (Hezkuntza, kultura eta kirol ministerioa) eta heziketa-programan lantzen ditugun bideak igarotzen diren autonomia-erkidegoen (Aragoi, Asturias, Kantabria, Gaztela eta Leon, Katalunia, Galizia, Errioxa, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoa) arteko lankidetzako-organismo bat:

Donejakue Kontseilua, alegia.

Kontseiluaren zeregina da Gizadiaren Ondaretzat jo diren Donejakue bideko ibilbideak (Frantses bidea, Kostaldeko bidea, EAE-Errioxako Barnealdeko bidea, Jatorrizko bidea, Lebaniego bidea eta Katalunia-Aragoiko bidea) kontserbatzea.

**Ba al dakite ikasleek zer den Gizadiaren Ondarea?
Hurrengo etapetan azalduko dugu.**

Gainera, Kontseilua Donejakue bidearekin lotutako sustapen-programak eta -jarduerak (besteak beste, gazteentzako heziketa-programa hau) antolatzeaz arduratzen da. Horregatik proposatzen dizuegu Kontseiluak koordinatzen dituen ibilbideak lantzea.

Etapak amaitu da, merezitako atsedenaldia ...

Asko ikasi dugu etapa hauetan eta ikusi dugu Donejakue bidea ez dela bide bat bakarrik, eta ez soilik ibilbide asko daudelako, baizik eta bide bat baino gehiago delako: goian aipatu bezala, mapetan ikusten ditugun bide horiei guztiei esker, Europako komunikabide garrantzitsu eta ezagunenetako bat bilakatu da, ezagutza eta kultura zabaltzeko bide eta merkataritza-ardatz. Orain zuei dagokizue legatuari bultzada ematea.

Gogoan izan heziketa-programa amaitzean Bideari buruzko lan artistiko bat egin behar dela.
Pentsatu al dute ikasleek zein den gehien motibatzen dituen kategoria?

Gure proposamena

Jarraian aurkezten ditugun proposamenak motibazio-jarduerak dira. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumeko gaitasunak eta edukiak osatzeko diseinatu dira, **“Zure Donejakue bidea, denon ondarea”** heziketa-programak ezartzen duen helburuaren baitan. Fitxa honetan ikasgai hauetarako proposamenak aurkituko dituzue:



HISTORIA



GEOGRAFIA



HIZKUNTZA



ARROTZ
HIZKUNTZA



FILOSOFIA

Gure I. proposamena: Informazio- eta komunikazio-teknologiak

Donejakue bideari buruz ezer ez dakitenentzat ... hauxe da lehen helburua: haien interesa piztea.

Horretarako, zertaz ari garen jakin behar dute. Donejakue bidea aurkezteko erakargarria izan daitekeen materiala erabiliko dugu. Hobe da ikasleei ikertzen uztea, gai honen inguruko datu asko aurki baitaitezke.

Proposatu, talde txikitan, Donejakue bidearen gaineko informazioa bilatzea, bakoitzak alderdi batean arreta jarrita. Horrela, alderdi garrantzitsuenak zuzenean ezagutuko dituzte.

Interneten, sare sozialetan eta ikastetxeko edota auzoko liburutegian arakatuta, informazio hau aurki dezakete, besteak beste:

- ibilbide desberdinen gaineko informazioa: etapak, distantziak, ...
 - bidaia egiteko aholku eta jarraibide baliagarriak,
- erromesen bizipenak azaltzen dituzten blogak eta sare sozialak,
 - aterpeen kokapena eta otorduak,
 - ...

Era berean, garrantzitsua da Bidearen hasiera bere garaian kokatzea; horretarako, ikasleek Bidearen erreferentzia historikoak bilatu beharko dituzte.

Bestalde, iturri desberdinak erabilia aurkitu dituzten albisteen laburpena egin dezakete. Telebistan, prentsan edo irratan sarri ikusten dira gaiari buruzko albisteak.

Informazioa bildutakoan, ikasleek informazioa aurkeztu eta elkarri azalduko diote; denon artean Donejakue bidearen ikuspegi aberats eta orokorragoa osatuko dute.

Agian, amaitzean galdera hau sortuko zaie: zer transzendentzia izango du Bide honek hainbeste jenderen interesa pizteko?

Gure II. proposamena: Dramatizazioa

Bideari buruz dena dakitena uste dutenentzat: pentsatu turista bati Bidea zer den azaldu behar diozuela dinamika honen bidez.

Donejakue bidea ezaguntzat jotzen duen taldeko kide batek bere herri edo hiriko informatzaile turistikoaren rola jokatu du; asko ez dakien beste batek, aldiz, Bidearekiko interesa duen turistarena. Turistak Donejakue bidea ezagutzeko beharrezkotzat hartzen dituen galderak egingo dizkio informatzaileari.

Galdera asko bururatuko zaizkizue, seguru. Hona hemen adibide batzuk:

- Zer egin behar dut ez galtzeko?
- Zenbat bide daude? Eta zein egin behar dut?
 - Non hasten da Donejakue bidea?
- Zenbat kostatzen du Bidea egiteak?
 - Non egingo dut lo?
- Nola jakingo dute aterpeetan erramesa naizela eta Bidea egiten ari naizela?
 - Eta autoz banao?
- Fededuna ez banaiz, egin al dezaket Bidea?
 - Denbora jakin batean egin behar al da?
 - Nahitaezkoa da asko ibiltzea?
 - Ezbehar bat badut, nork lagunduko dit?
- Derrigorrezkoa da Santiago de Compostelatik oinez itzultzea?

Jaso ikasleen iritziak.

Guk zalantzak argitu ordez, hobe da haiek beren kasa ikertzea.

Gure III. proposamena: Irakurriaren ulermena

Kode Calixtinoa iturri onenetako bat da Donejakue bidea jatorrian zer izan zen ulertzeko.

Gaur egungo herri eta hiri asko xehe-xehe deskribatzen ditu. Interesgarria izan daiteke ikustea Erdi Aroko erromes batek nola deskribatzen duen zuen eskualdea.

“Logroñotik Ebro izeneko ibai izugarri bat igarotzen da, ur osasungarriak eta arrain ugari dituen. Lizarra eta Logroño bitartean dauden ibaietan gizon eta abereek ezin dute edan, eta han dauden arrainak ezin dira jan. Noiz edo noiz Espainian eta Galizian eskuarki barbo deritzon, edo Poitou kolaka eta Italian aingira edota tenka izenaz ezagutzen den arraina jaten baduzu, gaixotu edo hil egingo zara berehala”.

Aukeratu zati adierazgarriena eta landu ezazue ikasleekin.

Ikasturtean zehar, testu asko erabili ahal izango dituzue ikasleen irakurriaren ulermena hobetzeko. Kode Calixtinoa Donejakue bidearen hainbat alderdi literaturaren bitartez azaltzeko erabil ditzakezuen baliabideetako bat besterik ez da. Hamaika obra aurki daitezke: eleberriak, poesia, prentsa-artikuluak, komikiak, bidaia-gidak, eta abar.

Testua aukeratutakoan, alderdi formalenetan jar dezakezue arreta, curriculumeko zenbait eduki eta ikasleen oinarritzko gaitasunetako batzuk lantzeko:

- Egilea, data eta obra.
- Obraren generoa eta azpigereneroa.
- Egitura.
- Edukiaren analisia: argumentua.
- Kanpoko eta barruko egitura.
- Forma edukitik abiatuta aztertzea: maila fonikoa / maila morfosintaktikoa / maila lexiko-semantikoa / maila estilistikoa eta komunikazio-maila
- Testuak egilearekin eta garaiarekin duen lotura.
- Ondorioa.

Bidearekin lotutako testuen bitartez, ikasleek Bidearen azterketa kritikoa egiten ikasiko dute eta, aldi berean, hizkuntza arloko ezagutzak hobetuko dituzte.

Gure IV. proposamena: Eztabaida - Pentsamendu Kritikoa

Donejakue bidea nahiko ondo ikertu eta aztertu dugunez, iritsi da garaia... ikasleen artean eztabaida bat irekitzeko.

Orain arteko proposamenak jarraitu badituzue, ikusiko zenuten ikaslea ikaskuntzaren ardatz, hots, protagonista bihurtzen saiatzen garela. Horretarako tresna baliagarrienetako bat ikasleen artean landutako gaien inguruko eztabaida sustatzea da.

Eztabaida sustatzeko egoera bat proposatzen dizuegu: ikasle batzuek Donejakue bidea egin nahi dute eskaini diezaiekeen esperientzia onuragarriagatik, beste batzuek, ordea, ikasketa-bidaia beste leku batean egin nahi dute. Beste aukera bat da eztabaidatzea zein den Bideko ibilbiderik interesgarriena. Bakoitzak badu bere xarma.

Eztabaida-taldeak ordura arte ikasitakoarekin has daitezke; bestela, ikasleei gehiago ikertzeko aukera emango zaie haien ikuspuntua defendatzeko arrazoibide sendoagoak izan ditzaten. Talde bakoitzak gaia ikertu ondoren, beste aukera bat da rola aldatzea eta ikasleek haien iritzia kontrako ikuspegia defendatu behar izatea. Ideien trukea eztabaida bera bezain garrantzitsua da.

Gogoan izan, eztabaidaren azken emaitza ez ezik, garrantzitsua dela ikasleek prozesu osoa ebaluatzea eta ikaskideen iritzia errespetatzeko ohiturari arreta berezia eskaintzea.

Proposamena V: Hizkuntzak

Erreparatu mapan Europako zenbat herri eta hiritatik igarotzen den Donejakue bidea...

Horietako bakoitzean zuek bezalako gazteak daude, akaso Donejakue bidea zer den ikasten ari direnak. Donejakue bidea mugak gainditzen dituen denon ondarea da.

Ikastetxean atzerriko hizkuntza bat ikasten ari bazarete, gazte horiekin haien hizkuntzan harremanetan jartzea gomendatzen dizuegu. Ikastetxeko webgunean bezalaxe, haiek ere izango dute harremanetan jartzeko blog, sare sozial, bideo-kanal eta abarren bat.

Zer galde diezaiekegu? Adiskidetasun-harreman baten hasiera izan daiteke...

Gure VI. proposamena: Ingurune fisiko eta giza espazioa

Beharbada ikastetxea ibilbideetan aipatutako herri edo hiriren batetik gertu egongo da, edo, agian, gehienei ez zaizue ezaguna irudituko.

Bigarren kasuan, aukera bikaina izan daiteke herri edo hiri horiek kokatzeko eta geografia ikasteko nahitaezko mapa erabiltzeko. Beraz, hemen gure proposamena:

- adierazi Espainia osoa zeharkatzen duten Donejakue bideko ibilbideak, Gizadiaren Ondare direnak azpimarratuz;
- aukeratu eta nabarmendu Bidea zein herri eta hiritatik igarotzen den (hasiera eta amaiera barne);
- kokatu ondare-mugarri nagusiak (arkitektura, natura, ondare immateriala, eta abar);
 - aurkitu herri eta hiri nagusiak, biztanleriaren dentsitatearen arabera. Bat al datoz Bideak zeharkatzen dituenekin?
- ikuspegi ekonomikoari erreparatuta, aurkitu herri eta hiri garrantzitsuenak. Zer eragin izan zezakeen Bideak jatorrian merkataritza-gune gisa?
- ezarri non garatzen diren erromesbidea konfiguratzeko gertaera nagusiak;
- ...

Mapekin hamaika lan egin daitezke, ezarritako helburuei jarraiki: turismo-indizeak, sektore ekonomikoak, azpiegiturak, ingurumena, lurralde-desorekak,...

Zer nahi duzue ikasleek ikastea Donejakue bideari buruz tresna hauek erabilita?
Teknologia berriak gehitzen baditugu, aukera zabala izango dugu.